

MATERIALISMO HISTERIKOA

Oporrak



UXUE APAOLAZA LARREA

Azken aldian, maiz amaitu dut erlijioez hizketan, ez sako-negi; eta atea izateaz, alegia, jainkorik gabe bizitzeaz. Hemen katolikoak izatea egokitu zitzaigun, eta katolizismoak egitura izugarriak izan ditu, eta dauzka. Zaila da frankismoaz ez gogoratzea, zaila da inmatrikulazioez ez gogoratzea, zaila da bortxatu dituzten hurrez ez gogoratzea, zaila da lapurtu dituzten hurrez ez gogoratzea, bahituta edukitako emakumez, senarren etxean, edo egoitza maltzurretan, eta abar, eta abar.

Ni atea naiz, baina uste dut beharren bat ondo ase gabe geratzen zaigula sinesgogorre, horregatik agian katolizismoa erantzi orduko bete ditugu armairuak beste mila sinemenez. Giza garuna ez dakit noraino dagoen prestatuta zoria guztiz onartzeko, eta zoria ez bada, kontrolatzen ez dituen makroegiturek erabakiko dutela bere partez, eta kontroltxo bat lortzeko bidea ez dela ez dakit zer konstelazio (erraza da hori), bide kolektibo oso zail bat baizik.

Atea izanda ezin dut zure alde errezatu beste zer egin dezakedan bururatzen ez bazait. Atea izanda, baina baita morala ere, noski, ez daukat barkatuko nauen jainkorik, eta morala ere, zaila da barneratutakoa berrikusi eta ondo/gaizki erabakitzea.

Katolizismoak beharrezko gauza batzuk ere utzi dizkigu. Doluaren epeak; dolurako beharrezko agur ekitaldiak; buruak atsedean hartzeko edo gogoa goratzeko txiki egiten gaituzten egoitzak, edo ibilian pentsatzeko klaustroak. Katolizismoa, gainera, nahiko festazalea ere bada. Lan egiteari uzteko opor egunak utzi dizkigu, oraintxe datozkigunak, adibidez; jainkoa dutenek hura zain dezatela egun libreetan, ateo maiteok, ea asmatzen dugun guk geure burua zaintzen, barkatzen, geure buruak ez jainkotzen, eta tragediaren ertzean elkarri gerritik heldu, eta hil arte, lanean berriro hasi arte, barkatu, dantzaten. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Polizia

Gazte bat jipoitu eta sudurra hautsi diote udaltzainek Gasteizen, patinete elektrikoan ihes egiten saiatzeagatik. Gaztearen aitak jakinarazi du adingabeen fiskaltzak hiru delitu larri egotzi dizkiola semeari, eta udaltzainei aldiz, delitu arina baino ez. "Horrelako zerbait espero genuen, baina ez hain lotsa gutxirekin jardutea".

Amianto

Petronor eta Iberdrola amiantoagatik gaixotutako langile baten osasun arazoaren erantzuletzat jo ditu epaileak, obretan beharrezko segurtasun eta osasun neurriak ez betetzeagatik. Legazpiko Patricio Echeverria enpresako langile ohi baten alargunari ere pentsioa onartu diote, senarra amiantoak hil zuela onartuta.

Energia

Nafarroako ubideko 57 kilometroak eguzki-plakekin estaliko dituzte. Nafarroako Gobernuak bideratuko du proiektua eta ubidea estaliko du eguzki-plakekin energia berriztagarria sortzeko. Ubidea iparraldetik hegoaldera doa, 57 kilometro ditu aire zabalean eta lehenbizi lizitatuko den zatiak hamar kilometro ditu.